

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Alkate zereginei berrekitea

IKUSIRIK. Alkatetzaren 2020ko abenduaren 17ko 2020/606 Dekretuaren bidez, lehen alkateorde Iñigo Pinedo Vadilloren esku utzi ziren Aiarako Udaleko Alkate-lehendakaritzaren eskudantzia guztiak 2020ko abenduaren 21etik aurrera, alkateak udalerritik kanpora joan behar zuelako osasun arrazoiengatik, alkatea bere zereginei berriro lotu arte.

IKUSITA. Gentza Alamillo Udaeta alkate-lehendakariak alta medikoa hartu duela.

Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44.1, 44.2 eta 47. artikuluetan ezarritakoa betez,

Alkate-lehendakariak hau,

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Lehen alkateorde Iñigo Pinedo Vadillori eskuordetzan emandako eskumenak kentzea 2021eko urtarrilaren 7tik aurrera, alkate-lehendakariak bere eginkizun guztiak berriro bereganatu dituelako.

Bigarrena. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Arespalditza, 2021eko urtarrilaren 7a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA